


Marabilli, kultura eta festa lagunartean

LAGUN GIROAN, pasioak eta kultur zaletasunak bultzatuta sorturiko jaialdiak interesgarria behar du derrigor. 2011n hil zen Aitzol Aramaio zine zuzendari ondarrutarra, eta haren omenez, herrikide eta betiko lagunek Marabilli sormen festibala antolatu zuten iaz lehen aldiz, Aitzolek zuen “artearekiko maitasuna, baikortasuna eta bizizaletasuna” islatzeko asmoa duen festibala. Bigarren edizioa izango du aurten jaialdiak, urriaren 10etik 13ra Ondarroan, eta *Txokolate apur bat* filmaren zuzendariari omenaldi ekitaldia egiteaz gain, kultur esparru ugaritako obrak eta sortzaileak biltzea lortu dute. Dantza izango da, arte erakusketak, kale antzerkia, argazkilaritza... eta bertan izango dira, besteak beste, Oier Lertxundi, Unai Iturriaga, Garazi Etxaburu, Ismael Iglesias, Bide Ertzean, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda edota Kiko Veneno.

Aramaio gogoan duen jaialdiak, nola ez, toki berezia egingo dio zazpigarren arteari. Zine zuzendariak, aktoreak eta kritikariak gerturatuko dira, sormenaz eta zinemaz solastatzera, hala nola Jon Garaño, Jose Mari Goenaga, Nagore Aranburu, Fernando León de Aranoa, Asier Altuna eta Koldo Almandoz. Bestetik, pantaila handian ikusi ahal izango ditugu gerrako haurrei buruzko *Agur esatea* dokumentala, Iñaki Otxoa de Olza mendizaleari buruzko *Pura vida*, eta euskal zinemagintzan aitzindari dugun *Amalur* (Fernando Larruquertek berak aurkeztua). Eta horiekin batera, #ResistOndarru, *Zubi herria harrizko irria* lanaren estreinaldia, eta oraindik zinema aretoetan dagoen *Amaren eskuak*.

Izenburu bereko liburuaren egile Karmele Jaio, pelikulan parte hartzen duen Loli Astoreka aktorea eta Mireia Gabilondo filmaren zuzendari arduratuko dira *Amaren eskuak* aurkezteaz. *Barrura begiratze*ko *leiborak* obran istorio hunkigarria eta indartsua zuzendu ostean, Jaioaren



Jaialdiaren kartela, Aitzol Aramaio, eta *Amaren eskuak* filmeko fotograma bat.

liburua egokitu du oraingoan Gabilondo bergararrak. Burua galtzen hasi dela-eta ama ospitalera eraman dutenean desegin da Nereak darman bizimoduaren oreka hauskorra: bikote harremana, alaba, lana eta orain ama zaindu beharra gehiegi da pertsona bakarrarentzat. Hala abiatzen da *Amaren eskuak*. Beteta zegoen edalontziak gainezka egin ostean, bi baino ez dira aukerak: etsi edo aurrera indartsuago ekin. Kutsu melodramatikoa duen film gorabeheratsua izan arren, pelikulak gai interesgarriak jartzen ditu mahai gainean: zaintza (kasu honetan, ospitalean dagoen amarena), gehienetan emakumeen esku; familia eta

lana uztartzeko borroka; eguneroko zurrunbiloan norbere burua aurkitzeko zailtasunak; edota familia barneko rol, harreman eta ardurak.

Aipatzekoa da aurten egin den euskarazko fikziozko film luze bakarra dela hau. Duela bi urte eskas, euskal zinemagintzaren oparotasunaz mintzo ginen ARGIAN bertan, *Arriya*, *Urte berri on*, *amona!*, *Bertsolari*, *Bi anai*, *Azken bidaia* eta *Gartxot* aipagai. Krisiak krisi, esanguratsua da aurtengo lehorrea, eta zer pentsatua ematen du.

Mikel Garcia
Idiakes

